

begira



44. zk.
2018 abendua



ULMA Taldeak gorputzaren eta buruaren
arteko oreka bultzatzen du

KARLOS PEREZ
ULMA Handling Systemseko
Pertsonen Kudeaketako
zuzendaria





ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA <
ULMA Taldea **Be Basque Talent
Conference** enplegu foroan



ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA <
ULMA Packaging IBA 2018 azokan

ALBISTEAK >
ETA GAURKOTASUNA
ULMA Agricola
gero eta sendoago dago
Asiako merkatuan



> ULMA TALDEKO BESTE TALENTUAK
Wagner Rocha. Jiu-jitsu brasildarra,
leuntasunaren artea



> AURREZ AURRE
Karlos Perez. ULMA Handling Systemseko
Pertsonen Kudeaketako zuzendaria

2018ko abendua

04 albisteak eta gaurkotasuna UES Railway Innovation Hub-eko bazkide

ULMA fatxada Diagonaleko etxe-
orratzean, Bartzelonan

EDiA EM, Mitsubishiren 48V-eko
kontrapisatu elektrikoa

Megaproiektua Flushing Zentroan,
Queens, New York

ULMA Conveyor Components 2018ko
SME Kongresuan eta Erakusketan
egon da

17 erreportajea RETINAL proiektuaren hedapen digitala hasi da

18 ULMA Taldeko beste talentuak Wagner Rocha. Jiu-jitsu brasildarra, leuntasunaren artea

20 aurrez aurre Karlos Perez. ULMA Handling Systemseko Pertsonen Kudeaketako zuzendaria

22 erreportajea ULMA Taldeak gorputzaren eta buruaren arteko oreka bultzatzen du

24 ULMA Fundazioa

26 agenda eta iradokizunak



ARGITARATZAILEA:

Grupo ULMA S. Coop.
Garagaltza auzoa 51
20560 ONATI

Tel.: 943 25 03 00

ZUZENDARITZA:

Carlos Sarabia
csarabia@ulma.com

EDITORE/ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Nora Altube, Joseba Alberdi,
Elena Goirizelaia, Maria Sendin,
Irene Moreno, Edurne Unzueta,
Nerea Burgoa, Jesús Mari Eguiluz y
Carlos Sarabia.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Igone Basterra
ibasterra@ulma.com

INPRIMATEGIA:

Gertu S. L.



Aldizkari hau paper
birziklatuan inprimatu da.
#keinujasangarria

ULMA HANDLING SYSTEMS

Recambios Marinos-ek banaketa zentro automatizatu eta ULMAREN SGA berria (biltegiak kudeatzeko sistema) estreinatu ditu

Recambios Marinosen banaketa zentroak bi azpistema automatizatu dauzka gaur egun: horietako bat paletetan biltegitratutako ordezko itsas produktuak kudeatzera bideratuta dago; bigarren azpistema, berriz, plastikozko edukiontzietan biltegitratutako produktuetara orientatuta dago.

Recambios Marinosen biltegi automatikoaren edukiera 2.800 palet baino gehiagokoa eta 6.800 edukiontzitik gorakoa da. Azpistema biok eskariak prestatzeko postuekin konektatuta daude eta postu horietan **Pick To Light gailuak daude, langileei prestaketa lana modu intuitiboan egiten laguntzeko.**

Eskariak finkatutakoan, Recambios Marinos prest dago produktuak 20 herrialde baino gehiagotako itsasontzietara bideratzeko.

Recambios Marinosen proiektu integralean, **ULMA Handling**



Systemsek garatu duen SGA (biltegiak kudeatzeko sistema) berria sartzen da, zeina banaketa zentroaren behar espezifikoetara egokituta dagoen. Softwareko produktu berri honen nukleoan, soluzio automatizatuaren integrazioan ULMAK duen 30 urtetik gorako esperientzian jasotako oinarritzko

funtzionalitateak daude.

Paleten eta edukiontzien biltegi automatikoaren fluxu guztia kudeatzeaz gain, ULMAREN SGAK aukera ematen dio enpresari biltegitratutako erreferentziak modu konbentzionaletan kudeatzeko.

SGA berriak berekin dakar informazioa eta ikusizko azterketarako puntako tresnak edukitzea eta interfaze lagunkoi eta erabilerraz baten bidez **banaketa zentroa uneoro nola dagoen jakitea,** intzidentziak azkar ebatzi eta erabakiak hobeto eta egokiago hartzeko. Hala, zentrotik bertatik eskaintzen diren zerbitzuen kalitatea eta fidagarritasuna bermatzen da.

ULMA ORGA JASOTZAILEAK

Inoxtruck Vigoko Conxemar Azokan egon da



BEDERATZIGARREN URTEZ JARRAIAN BAZTERTU EZIN DUEN ZITA HONETAN

ULMA Inoxtruckek Vigon izandako CONXEMAR azokaren azken edizioan parte hartu du. Itsas produktu izoztuen nazioarteko azoka hau erreferentziakoa da European, eta bertan sektore osoa biltzen da: handizkariak, inportatzaileak, esportatzaileak, eraldatzaileak, fabrikatzaileak, banatzaileak, hozkailuak, makineria, industria laguntzailea (hotza, enbalajeak, plastikoak, etab.).

Galiziako SOGACSA banatzailearekin lankidetzan, **arrantzaren sektorerazuzendutako soluzio gama zabala erakutsi du ULMA Inoxtruckek.**

Bezeroen topagune izateaz gainera, azokan zehar garrantzi handiko harreman komertzialak egin dira.

ULMA PACKAGING

Think XXL – Gustatuko litzaizuke gurekin lan egitea?

ULMA Packagingek etorkizunaren alde egin du. **Think XXL kanpainak gaur egungo talentudunen artean ULMA Packagingen erakargarritasuna indartzea du xede.** Kanpaina honen bidez, lan proiektu lehiakor eta nazioartekoa duen enpresa gisa agertu nahi du ULMA Packagingek; enpresa bat non lankidetzan, prestakuntza eta lan giroa, bikaintasuna eta berrikuntza teknologikoa bilatzea bezain garrantzitsuak diren.

Zenbait elementuren inguruan ardatzen da kanpaina. Elementurik inportanteena, dudarik gabe, ULMA Packagingen webgunean enpleguari eskaintzen zaion atal berria da. "Gurekin lan egin" atal zaharraren berridiseinua da, askoz ere irudi modernoagoarekin eta mezu erakargarri eta zuzenagoekin.

Kanpainaren bideoa beste elementu izar bat izan da. Bideoan ULMA Packagingen izaera eta balioak islatzen dira, eta protagonistak gure langileak izan dira.

ULMA Taldeak abiarazi duen "ULMA, a better place" kanpainarekin batera, talentua erakartzaren inguruan irudi osoa berritzeko egindako apustua berretsi da, eta hola, ULMA Taldeari, eta ULMA Packagingi bereziki, egungo garaietan horren beharrezkoa den talentua erakartzeko kapazitatea ahalbidetuko dion estrategia globalari erantzuten zaio.



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

Aurrez fabrikatutako pieza bereziak Angolako Batzar Nazionalerako

BERRIRO ERE ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONSEK ERAKUTSI DU PREMIA BEREZIENTARA ETA PERTSONALIZATUENETARA MOLDATZEKO GAI DELA

Luanda, Angolako hiriburua, munduko hiri garestienetakotzat jotzen da, eta bertan Batzar Nazionalaren eraikin berria egiten ari dira.

Pieza aurrefabrikatu ugari diseinatzea eta fabrikatzea da, zehazki, eraikin horren proiektuak dakarren erronka. Estilo kolonialeko eraikinak polimero hormigoizko soluzioak ditu; esaterako: **400 pilare estalki baino gehiago, 500 bat balastrada, azpadura pertsonalizatuak, forjatu aurrealde modulatuak, horma txapelak, erlaitzak, zeharragak...** Berezko nortasuna duen eraikina da, beraz.

Eredu erabat pertsonalizatuak dira eta ULMA Architectural Solutionsek eskaini ohi dituzten bestelakoak. Pasa den urtarrilean hasi zen fabrikatzen eta gaur arte 16 edukiontzi bidali dira jada. Aurreikusita dago urte amaieran bukatzea.

Proiektu honen konplexutasunari

buruz hitz egin dugu Luis Tomerekin, ULMA Architectural Solutionseko Fabrikazio arduradunarekin, eta hau esan digu:

*"Proiektu konplexua eta zaila da, fabrikatzen ari garen pieza desberdin ugariengatik eta paletizatze lan konplexuengatik. Ni neu denbora asko pasatzen ari naiz lan honetan eta proiektua gidatzea oso aberasgarri izaten ari da niretzat, baita estresagarria ere. Izan ere, hemen lanean urte asko badaramatzat ere, ez zait inoiz egokitu hain obra handian parte hartzea, eta obra honetatik asko ikasten ari naiz, orain arte inoiz ez bezala. **Azpimarratzekoa da honelako proiektuak gauzatzeko oso-oso garrantzitsua dela taldean lan egitea. Nabarmendu nahi nuke Patricia (SAC) eta Nicolauk (Galdaragintza) eskaini didaten laguntza, bai eta fabrikazioko lankideek eskainitakoa ere.**"*



ULMA AGRICOLA

ULMA Agricola gero eta sendoago dago Asiako merkatuan

ORAINTSU AMAITU DU ULMA AGRICOLAK GOI MAILAKO TEKNOLOGIA PROIEKTU BATEN INSTALAZIOA JAPONIAN

Tomatea hidroponikoan landatzeko ia hektarea bateko proiektu bat da, laborantza eutsiko kanaleta sistemarekin.

Instalazioak teknifikazio maila handia eta egiturazko erresistentzia dauzka. ULMA Agricolak, behar diren **material eta ekipamendu guztien hornikuntza** egiteaz gain, **proiektuan instalatutako ekipamendu guztien muntaketa eta integrazioa gainbegiratu** ditu.

Montzoiairen ondorioek baldintzatu ohi dute Japoniako klima; hala, ozeanoko haize bero eta hezeek, udan, tenperatura altuak, haize indartsua eta hezetasun indize altua eragiten dituzte.



ULMA CONSTRUCTION

Axel Springer argitaletxearen bulego berriak

AXEL SPRINGER ARGIALETXEAK BERLINEN DUEN ETXE-ORRATZ ENBLEMATIKOAK 50 URTE EGIN DITU ETA URTEURRENEKO UNE HORI AUKERATU DA ARGIALETXEAREN BULEGO BERRIAK ERAIKITZEKO, ZEINAK 2020AN 3.500 LANGILE HARTUKO BAITITU

Eraikina Rem Koolhaas arkitekto ospetsuak diseinatu zuen, OMA arkitektura estudioan, eta bere egiturak 30 metroko luzera duen atari bat dauka errezel itxurako horma batekin eta hiru dimentsioko elementuekin, eraikinaren erditik diagonalean kokatuta.

Eraikinaren eskakizun arkitektonikoek **enkofratu eta aldamioren irtenbide integrala** eskatu dute, bai eta **laguntza tekniko eta logistikoa eta aholkularitza ere, proiektuaren hasieratik gauzatu arte**. ULMAk **irtenbide globala** eskaini du.

Eraikitze prozesua optimizatzea izan da premisetako bat. Bezeroak eta ULMAk lana elkarrekin egiteak enkofratze zikloa planifikatzea ahalbidetu du. Horretarako, obra 4 sektoretan banandu da. Enkofratze sistema guztiak (nukleorakoa, lauzarakoa eta

pilareetarakoa) txandakatu egin dira gune batetik bestera erlojuaren orratzen noranzkoan eta horrela material guztiak errentabilizatu dira.

Eskakizun arkitektonikoei ingeniariak estrukturalaren erronkak batu behar zaizkie. Eraikinaren beheko erdian, isolamendu termikoa eta akustikoa sabaietan txertatuta egon

behar zen; hori dela eta, enkofratuaren diseinua planteatzerakoan baldintza hori hartu zen kontuan.

Bezeroaren eta ULMAren arteko hurbiltasuna eta etengabeko komunikazioa dira proiektu honen arrakastaren alderdi garrantzitsu bat. Horrekin saihestu da eraikitze prozesuan botila lepoak eta atzerapenak egotea.



ULMA EMBEDDED SOLUTIONS

ULMA Embedded Solutions Railway Innovation Hub-eko bazkide egin da

TREN SEKTOREAN NAZIOKO ETA NAZIOARTEKO ERREFERENTZIAZKO MARKA BIHURTZEKO ENPRESA ESTRATEGIAREN BARRUAN SARTZEN DA ELKARTEA

ULMA Embedded Solutions (UES) Railway Innovation Hub-eko bazkide bihurtu da. **Enpresa elkarte honetan 66 bazkide daude, eta bere xedea da trenari buruzko teknologia eta ezagutza bultzatzea elkarte osatzen duten enpresen berrikuntzan, tren arloko berrikuntzan Espainia nazioarteko erreferente bihurtzeko.**

Testuinguru horretan, UESK tren sistemak EN 5012X araudiaren arabera garatzearen inguruan daukan esperientzia jarriko du, hardwarea, softwarea eta logika programagarria barne. Era berean, software sistemen mantentze lana egiten daukan esperientzia ere jarriko du, horrela produktuaren bizi zikloa barne hartzen baita.



ULMA CONVEYOR COMPONENTS

ULMA Conveyor Components 2018ko SME Kongresuan eta Erakusketan egon da

SME erakundea (Society for Mining, Metallurgy and Exploration) irabazi asmorik gabeko elkarte profesional bat da, 100 herrialde baino gehiagotako 15.000 bazkidek gora daukana. Egoitza Estatu Batuetako Denverren (Co) dauka, eta **Estatu Batuetan meatzaritzarekin loturiko urteko ekitaldirik handiena antolatzen du, hots: SME Kongresua eta Erakusketa.**

Kongresuak 120tik gora saio eta hitzaldi tekniko eskaintzen ditu, eta erakusketan 550 enpresak baino gehiagok parte hartzen dute. Izan ere, garrantzi eta oihartzun handieneko ekitaldia da Estatu Batuetako merkatu lehiakorrean.

ULMA Conveyor Componentsen aldetik talde komertzial osoa joan zen, eta hainbat produktu aurkeztu ziren; horien artean, bereziki azpimarratzekoa da **arrabol motorizatuen sistema aurkeztu berria, zeinak oso harrera ona izan baitzuen eta bertaratuen artean interes handia piztu baitzuen**. ULMA Conveyor Componentsen Kongresuaren



barruan aurkeztu zuen lehen aldiz munduan arrabol motorizatuen sistema.

ULMAren standak bisitari ugari izan zituen, batzuk oraingo bezeroak, beste batzuk kontaktu berriak, eta horietako asko arrabol motorizatuen sisteman interesatuta zeuden. Horrez gain, amerikar ingeniariak etxerik inportanteenak ere (Thyssenkrupp USA, Terranova Technologies, Dos Santos International, etab.), aipatutako teknologiaren inguruko interesa erakutsi zuten.

2018 SMERi dagokionez, ULMA Conveyor Componentsen helburu nagusia hauxe zen: Estatu Batuetako merkatuaren ezagutzan aurrera egitea, oraingo partnerrekin harremanak estutzea, eta merkatu horretan presentzia handitzea ez ezik agerikotasuna ere hobetzea, eta helburua soberan bete zen.

ULMA TALDEA

ULMA Taldea Be Basque Talent Conference enplegu foroan

ULMA Taldeak Be Basque Talent Conference enplegu foroan parte hartu du joan den urriaren 6an, Londresen, Bizkaia Talentek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin antolatuta.

Ekitaldian parte hartzeko arrazoia zen **bere garaian Erresuma Batua lanera joatea erabaki zuten kualifikazio handiko euskal profesionalak erakartzea.**

Topaketara 47 euskal erakunde bildu ziren, eta **ULMAk profesional handiak ezagutzeko aukera izan zuen.** Ekitaldian izan ziren 4 ordezkariak informazioa eman zien bertaratutakoei, lehen eskutik, ULMAren gaur egungo egoerari buruz, eta ibilbide profesionalerako eskaintzen dituen aukerei buruz.

Talentuen mugikortasunaz eztabaidatu, tailer tematikoetan parte hartu eta ohikoa baino giro lasaigoan hitz egin; dudarik gabe, oso positiboa izan da hori dena ULMArako, forora joandako **137 profesionaletako 60 baino gehiagorekin balio erantsi handiko harreman pertsonala** eduki ahal izan zuen eta.

Profesionalek, berriz, eskertu zuten bertaratutako enprekin edukitako harremana eta Euskadin gaur egun dauden proiektuei eta egoera ekonomiko eta laborari buruz jasotako informazioa.

Oro har, etxera itzuli nahi dutela hauteman zen; halere, profesionalen asmoa da itzultzeko gogo hori Erresuma Batuan duten famili egoerarekin bateratzea.

ULMArentzat, balio erantsi handiko enplegua sortzeko konpromisoa da bere nortasun ezaugarri nagusietako bat, aldi berean, pertsonekin eta ingurunearekin duen konpromisoa indartzen baitu.



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

Komunika+UAS: ULMA Architectural Solutionsen barruko aldizkari berria

ARGITARATU DA BARNE KOMUNIKAZIORAKO EUSKARRI BERRI HONEN LEHEN ZENBAKIA

ULMA Architectural Solutionsek KOMUNIKA+UAS bere barruko aldizkari berriaren lehen zenbakia argitaratu berri du. Bidaide berri hau helburu bikoitzarekin jaio da, batetik, gure pertsonen arteko lotura izateko eta, bestetik, partekatzen dugun proiektu globalari buruz gehiago jakiteko.

Kalitateko edukia diseinu freskoarekin eta idazkera hurbilarekin eskaintzen duen aldizkaria da. Besteak beste, bazkideei egindako elkarrizketak, ekitaldi eta azoken gaineko informazioa eta albiste korporatiboak aurkitu ditzakegu bertan, bai eta lehiaketa bat ere, non bi pertsonarendako bidaiatxo bat zozketatzen den.

Hitz batean, tresna berri bat gure kooperatiba barruko komunikazioa hobetzeko.

ULMA CONSTRUCTION

Megaproiektua Flushing Zentroan, Queens, New York

Tangram Plaza 110.000 m² baino gehiago urbanizatu eta biziberritzeko proiektu bat da, Flushingeko bihotzean, Queens. Proiektuan sartzen diren eraikuntzak dira 1.200 lekuko lurpeko aparkaleku bat, 220 apartamentuko bi etxebizitza dorre, A mailako bulegoetarako eraikin bat, 32.000 m² baino gehiagokoa, lokal edo espazio komertzialak eta 240 gelako hotel bat.

ULMAk hasieratik hartu du parte megaproiektu horretan, mota guztietako egituretarako soluzio integralak hornituz. Horrenbestez, hormak eta zutabeak egiteko **MEGALITE kofratu modularra** erabili da. ULMA sistema guztietan bezala, segurtasuna integratuta dago. Laneko perimetroa plataformekin instalita egon da prozesu guztian zehar. **CC-4 aluminiozko kofratua** aukeratu da, lauzazko azalera zabaletarako ezin hobea izanik, dorre nagusiak, aparkalekuak eta saltokiak

egiteko. CC-4 kofratuzko 2.300 m²-ko panelak **MEGAFRAME** eta **ALUPROP** aluminio galbanizatuzko dorreak erabiliz gauzatu dira, txarrantxazko markoekin indartuta.

ULMA horrelako proiektuetan USAn

zein mundu zabalean duen esperientzia funtsezko alderdia izan da hornitzaile moduan aukeratzeko; halaber, kontuan hartu da baita ere adostutako epeetan hainbeste ekipamendu hornitzeko gaitasuna izatea.



ULMA PACKAGING

Moldagarritasun handiko termoformatzaile berria

ULMA Packagingek TFS 200 MSV izeneko termoformatzaile berria garatu du oraintsu. Termoformatzaileak **ontziratze teknologia desberdinak bateratzen ditu ekipamendu berean.**

ULMA Packagingen termoformatzaile berri honekin egin daitezke **ontzi zurrinak atmosfera eraldatuarekin, produktuaren bigarren azala diruditen skin ontziak, eta baita hutseko ontziratze klasikoa ere.**

Bezeraok, hala, nahi duen sisteman ontzira ditzake bere produktuak. Skin sistemari esker, produktua 45 mm-raino irten daiteke erretiluaren goi ertzetik.

Materialei dagokienez, TFS 200 MSV termoformatzailea egokituta dago plastiko zurrinak nahiz malguak erabiltzeko, bai eta kartoiarekiko konbinazioak erabiltzeko ere.

Garapen berri honen sustapenari laguntzen dion "Dena batean" esamoldeak ezin hobeto laburbiltzen du daukan balio diferentziala.



ULMA CONVEYOR COMPONENTS

Italiako ingeniari etxe baten proiektua Tadjikistanerako

Italiako ingeniari etxe batek lurrag mugitzeko planta bat arrabolez hornitzeko kontratua esleitu dio ULMA Conveyor Componentsi, Rogungo presa eraikitzeko, Tadjikistanen.

Proiektua 335 metro garai den presa bat eraikitzean datza, alegia, Vakhsh ibaian munduko presarik garaiena eraikitzea. Presa, hain zuzen, Asia Zentraleko mendikate nagusietako bat den Pamiren kokatuko da.

Proiektua koordinatzen duen estatu enpresak, alegia, OJSC "Rogun Hydropower Project"-ek, lau lote edo fase aurrekusten ditu. **Eskari honek bigarren faseari egiten dio erreferentzia.**

Lehenengo ere ULMA Conveyorren eskutik etorri zen, Frantziako beste ingeniari etxe bat hornitzeko.

Amaitutakoan, plantak 600na MW-eko 6 turbina izango ditu, guztira 3,600 MW-eko ahalmen instalatuarekin (energia nuklearreko hiru plantaren baliokidea).

Presa berriaren inpakturik esanguratsua zera izango da: Tadjikistan energia sektorearentzako erreferentzia puntu bihurtzea eskualdean, herrialdean energiaren produkzioa bikoiztea eta neguko hilabeteetan jasan ohi den energia eskasia asko murrizten laguntzea.



ULMA CONSTRUCTION

ULMAk soluzio integrala garatu du Peruko Pachachaca plantaren eraikuntza proiektuan

EPE LABURREKIN, EGURALDI TXARRAREKIN ETA ALTUERA HANDIAN EGIN DA LAN, ETA ULMAK EGOKI ERANTZUN DIE BALDINTZA HORIEI, PROIEKTUAREN PLANIFIKAZIOA ETA GESTIOA ETA PRODUKTUEN KALITATE EGOKIAREKIN

Proiektu honekin, asko handitu da plantak Toromochoko planta kontzentratzailea hornitzeko duen ahalmena. Orain, 950 tona kare bizi baino

gehiago hornitzeko gai da.

Proiektua bi etapatan bereizi da: Lehen etapa, karea erretzeko labeen aurremuntaketa; eta bigarrena, hornidura tunelak, karea erretzeko hiru labe, siloak eta beste eraikin batzuk gauzatea. Eta, lanak eguraldi txarrarekin eta 4.000 m-ko altueran egin zirela alde batera utzita, emaitzak oso onak izan dira bezeroarentzat.

Siloetan planteatutako irtenbidea izan

da proiektu honetan azpimarragarriena. Egitura zirkularerako, zutabeak baitzituen, beharrezkoa izan da arazorik gabe moldatzen den enkofratu bat erabiltzea. Horregatik erabili da ENKOFORM VMK, edozein geometriarako ezin hobea delako.

ULMAko taldeak enkofratuaren muntaketa berrikusi du une oro, eta horrek bermatu du operazioak emaitza onak edukitzea.



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

Drainatze soluzioaren 3000 metro lineal Anchieta autobidean (Brasil)

Anchieta autobideak Sao Paulo eta Santoseko portua lotzen ditu, eta Brasil osoan dagoen ibilgailu, pertsona eta merkantzien zirkulaziorik handieneko bideetako bat da. Bere bideetan **Kompaqdrain Traffic kanal**en 3.000 metro lineal instalatu dira guztira, hiru altueratan.

Aurretik **in situ** fabrikatutako kanal

ordez jarri dira gure Kompaqdrain Traffic kanalak, **kanalen sekzio hidraulikoa eta urarekiko erresistentzia murriztuta. Kanalen efizientzia hidrauliko handiagoaz** aparte, haien materiala, muntatzeko erraztasuna eta Max Flow® sistema eskusiboa ere izan dira konponbide gisa eskaini dugun kanal trinkoa aukeratua izateko giltzarrietako batzuk.



ULMA HANDLING SYSTEMS

ULMA Handling Systemsek "4.0 industriari" buruzko adituen mahaian parte hartu zuen

"4.0 industria, oraina eta geroa" goiburuean, DEIA egunkariak antolatutako aditu mahaian parte hartu zuen ULMA Handling Systemsek.

Mahaian moderatzailea SPRIko Berrikuntza eta Teknologia zuzendaria den Aitor Cobanera izan zen, eta bertan parte hartu zuten, baita ere, KEINETIC TECHNOLOGIESEKO zuzendari teknikoak, GAIako zuzendari nagusiak, EGA SOLUTIONEKO Bussiness Development zuzendariak eta ULMA Handling Systemseko gerente Juan Jesus Alberdik.

"Tecnologiak eskaintzen dizkigun aukeren atzetik goaz enpresok", esan zuen Juan Jesus Alberdik, eta segidan teknologia horiek enpresetan modu adimentsuan txertatzearen garrantzia nabarmendu zuen, aurrerapausoak egiten jarraitzeko.

Ekitaldiaren helburua euskal industriaren posizioa zein den eta datozkigun erronkak gainditzeko zer pauso eman behar diren jakitean ardaztu zen.



ULMA PIPING

Asiako Oil & Gas Bienalik garrantzitsuen den 2018ko OSEAn parte hartu du ULMA Pipingek



Orain dela 40 urte baino gehiago estreinakoz Singapurren abiarazi zen OSEA Oil & Gas bienala Asiako petrolio eta gas industriaren ekitaldirik garrantzitsuenen dela berretsi da.

Tokiko industriaren eta administrazioaren babes handiarekin, OSEAK nazioarteko parte hartze sendoa erakarri du, izan ere, **ezinbestekoa da, gurea bezain lehiakorra den sektore honetan, aintzat hartzeko moduko player-ak izan nahi duten enpresentzat bertan egotea.**

ULMA Forja S.Coop. joan zen azaroan izan zen estreinakoz ekitaldi honetan, eta eskualdeko stockzain eta ingeniari etxeekin zeuzkan harremanak sendotu egin zituen, lehendik ere sendoak baziren ere.

2016ko azokan, 48 herrialdetako 983 erakuslekin ekipamendu, berrikuntza eta zerbitzu gama zabala erakutsi zieten 64 herrialdetako / eskualdetako 12.024 bisitari profesionali. Zifra horiek gaitu egin dira edizio honetan, izan ere, bertaratutakoak ia 18.000 izan dira, eta eremua ere handiagoa izan da.

ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

ULMA fatxada Diagonaleko etxe-orratzean, Bartzelonan

Neurri oso handiko eraikina da, eta konplexutasun handikoa gauzatzean, izan ere, gauzatze epe laburrak direla-eta proiektuak eskatzen zuen eraikinaren 6 solairu berriak eraikitzen amaitzen zen une berean fatxadak muntatzea.

Bista bikainak ditu, eta hiriko eraikinik abangoardistenetako bat bihurtu da

ULMA Architectural Solutionsek 124 etxebizitza eta 26 solairu dituen 100 metroko dorre abangoardista batean instalatu du bere fatxada aireztatuko soluzioa, Diagonaleko gunerik modernoenean. Etxe-orratz ikaragarri hori Diagonal hiribidean dago, Pere IV. arekin gurutzatzen den lekuan, eta hiriko bederatzigarren eraikinik altuena da. Moliner Office Architetcts izan da proiektuaren egilea, zeina Bartzelonan egoitza duen eta Jordi Molinerrek zuzentzen duen arkitektura estudioa baita.

ULMA fatxada aireztatua: iraunkortasuna eta kalitate ezin hobea

Proiektuaren filosofia izan da etxebizitza iraunkorrak sortzea, kalitate ezin hobearekin eta kostu lehiakorrekin. ULMAren polimero hormigoizko Fatxada Aireztatuz estalita dago, eta hori sistema energetikoki efizientea da, eraikinaren energi kontsumoan aurrezpena dakar eta agente atmosferikoen aurkako babesa eta iraunkortasuna ematen du, den-dena munduko hiririk berritzaileenetako etxe-orratzek markatzen duten joerekin bat eginda. Lurraren testura erabili da eta VANGUARD gamako kolore porfidoa, 900x500 mm-ko paneletan.



ULMA TALDEA

Joan zen urrian, Hego Koreako eta Brasilgo enpresetako ordezkariak ULMA Taldearen instalazioetan izan ziren bisitan, MONDRAGON Unibertsitatearen eskutik.



ULMA HANDLING SYSTEMS

Logistikaren sektorean erreferenteak diren Espainiako eta Frantziako bi azokatan egon da ULMA Handling Systems

Azaroaren 12an eta 13an, ULMA Handling Systems urtero egiten den Logistics azokan egon da. Azoka hau Madrilgo IFEMA erakustazokan egiten da, "Logistikaren eta banaketaren industria eraldatzen duten berrikuntzak" goiburupean.

Edizio honetan, ULMAk barne-logistikako ingeniarietza soluzioak aurkeztu dizkie bisitariei, hots: biltegiatze automatizatu eta bai fabrikaziora bai banaketa automatizatura bideratutako eskarien prestaketa.

Logistics azoka topagunea eta Empack, Label&Print eta Packaging Innovations azokak aldi berean egiten dira, hornikuntza kateko arlo desberdinetako arduradunak erakarritik.

Gainera, azaroan logistikaren arloko

beste zita garrantzitsu batean izan da ULMA: ALL4PACK-en, zeina azaroaren 26

eta 29an egin baita Parisko Nord Villepinte erakustazokan.



ULMA PACKAGING

ULMA Packaging IBA 2018 azokan

IBA azokaren iragan edizioa München egin zen urriaren 23tik 28ra bitartean, eta nazioarteko erakusleihu bat izan zen ULMA Packagingentzat. Bertan, **ULMA Packaging mundu mailako erreferente gisa agertu zen, okintza eta pastelgintza, gozogintza, txokolate eta snack industriarako ontziratzeko soluzioetan espezializatuta.**

Kasu honetan, ULMA Packagingek 176 m²-ko eremua hartu zuen. Eremu horretan, gailetak kargatu eta ontziratzeko instalazioak eta ULMA Packagingek sektorerako dituen automatizazio ahalmenak erakusteko instalazioak erakutsi zituen.

Laburbilduz, azokan berretsi egin da negozioak bakery-an izan duen eboluzio ona, eta sektorearen alde egiten jarraitzeko hautua sendotzen du, oso sektore lehiakorra izan arren aukera handiak eskaintzen ditu eta.



ULMA CONVEYOR COMPONENTS

Finlandiar ingeniari-tza proiektua

Finlandiako ingeniari-tza etxe batek ULMA Conveyor Componentsi esleitu dio **Finlandiako Terrafame meategiko eremu bat girlandaz hornitzeko kontratua**. Terrafamek nikela, zinka, kobaltoa eta kobrea ekoizten ditu, altzairu herdoilgaitza, korrosioaren kontrako babesak eta bateriak aplikazioak egiteko.

Eskariak duen garrantzi handiaren ondorioz, produkzio, kalitate eta mantentze arduradunek, ingeniari-tzako

zuzendariarekin batera, ULMA Conveyorren eta Taldearen instalazioak bisitatu dituzte berriki, eta onerako ezustea hartu dute, Taldearen dimentsioa eta ULMA Conveyor Componentsen ahalmenak eta kalitatea ikusita.

Meategia 2015aren bukaeran estatuaren eskuetan gelditu zenetik, etengabe ari da handitzen. Gaur egun, meategiko ordeko piezen hornikuntzarako kontratu bat negoziatzen ari dira.



ULMA EMBEDDED SOLUTIONS

Navantiak ULMA Embedded Solutionsen jarri du konfiantza

Prozedura publiko luze baten ondoren, Navantiak ULMA Embedded Solutionsen jarri du konfiantza, **eskakizunak kudeatzeko egungo tresnak goitik behera garatu eta JAZZ izeneko plataforma sendoago eta integratuago batera eramateko proiektu bat gauzatzeko**. Soluzio honi esker, **Navantiak lantalde desberdinen arteko lankidetzaren eta komunikazioa hobetuko ditu**.

ULMA Embedded Solutionsek esperientzia luzea dauka datuen bolumen handien migrazioan eta IBM erremintaren pertsonalizazioan eta ezarpenean, bereziki eskakizunak eta probak kudeatzeari dagokionean. Hala ere, proiektu hau erronka bat izango da ULMArentzat, berekin ekarriko baitu web teknologia berri dinamikoago eta moldagarriagoak integratzen dituen aplikazio plataforma oso bat muntatzea, zeinaren bitartez, besteak beste, proiektuen egoera zein den denbora

errealean ikusi ahal izango baita grafikoen interaktiboen bidez.

Hauxe izango da UESk gauzatu duen bolumen handien proiektua, eta horrek ekarriko du mota horretako proiektuak eta ospe handiko bezeroak sartzera. Hori guztia baliagarria gertatuko zaigu ULMAk eskaintzen dituen soluzioen bidez gure irudia eta konfiantza indartzeko.



ULMA MEDICAL IMAGING

ULMA Medical Imagingen eta MiiS-en arteko aliantza irudi medikoko ekipamenduak garatzeko

Joan zen urrian, ULMA Medical Imagingek lankidetzaren eta banaketa hitzarmen bat itxi zuen Medimaging Integrated Solutions Inc.-ekin (MiiS), **ULMA markaren pean irudi medikoko ekipamenduak elkarrekin garatu eta fabrikatzeko**.

Taiwango MiiS enpresa munduko liderra da irudi erretinografiko hartzeko ekipamendu eramangarrien fabrikazioan. Sortu zenetik, gailu optiko eramangarrien diseinu eta fabrikazioan espezializatu da, objektibo trukagarrien bidez kalitate handiko irudi medikoa eskuratu eta espezialitate mediko desberdinei erantzuteko, hala nola oftalmologiari eta dermatologiari, besteak beste.

Aliantza honi esker, hasteko, ULMA markako prestazio handiko erretinografo bat eduki ahal da, eta, etorkizunera begira, irudi medikoko beste gailu batzuk kogaratzeko dira ULMA Medical Imagingen lan lerro berrietarako.

Arlo teknologikoko hitzarmenaz aparte, produktuen katalogoa mundu mailan zabaltzeko akordio komertziala ere sartuta dago aliantzan.



ULMA ORGA JASOTZAILEAK

EDiA EM, Mitsubishiren 48V-eko kontrapisatu elektrikoa

ULMA Orga Jasotzaileak enpresak Mitsubishi EDiA EM berriaren 48 V-eko serieko bertsioa aurkeztu du udazkenean. Bertsio honek baditu hiru eta lau gurgpileko modeloak, 1.4tik 2.0 tonara bitarteko karga ahalmenekin. Ibilgailu sendoa da, errendimendu handira bideratutako diseinuarekin eta EDiA software aurreratuarekin.

Funtzionamendu intuitiboa dauka eta langile bakoitzaren ezaugarrietara egokitzeko aukera ematen du, langilearen trebezia eta gorpuzkera gorabehera; betiere konfort maila altuari eutsiz.

Esate baterako, oinentzako espazioa 50 neurriko oinetakoak arazo barik sartzeko modukoa da.

Software aurreratuak

Aukera ugari hornituta egoteaz gainera, Mitsubishi orga jasotzaile batengandik espero den maniobragarritasuna, potentzia eta fidagarritasuna dauka orga honek.

EDiA EM-ren software aurreratuak denbora errealean analizatzen du portaera, eta automatikoki doitzen da errendimendu seguru baina produktibo batera.

Zalantza barik, gama berri hau apustu irabazlea da, orgarik adimentsuena baita, eta merkatuko iraunkorrenetako bat.

Azkenik, azpimarratu behar da gama berri honek dieseleko baliokideak gainditzen dituela, eta zarata maila txikia dela bere abantaila bat. Orga hauek barruan nahiz kanpoan lan egiteko kapazak dira, baita aurkako baldintzetan ere. Energia kontsumoa minimoa da, eta segurtasun eta konfort mailak, berri, egundo ikusi gabeak.



ULMA AGRICOLA

ULMA Agricola Fruit Attraction azokaren 10. urteurrenean

2018ko Fruit Attraction-ek sekulako ospakizuna egin zuen bere 10. urteurrenean. 1.600dik gora enpresa erakusketari eta 120 herrialdeko profesional bildu ziren Madrilan, Espainian, urriaren 23tik (asteartea) urriaren 25era bitartean (osteguna), barazki eta fruitu kanpainen planifikazioarako giltzarri den une batean.

Erabat nazioartekoa den azoka honetan, Kanada eta Saudi Arabia bisitari izan dira inportatzaile gonbidatu gisa, azken urteotan Europar Batasunetiko fruitu eta barazki inportazioetan portaera bikaina izan dutela eta.

Hiru egunak bizi-bizirik izan ziren,

non ULMA Agricolako standera jo zuten bisitariak **azken urtean instalatutako proiektuetan eta ULMA Agricola egun lantzen ari den proiektuetan eskaintzen diren berrikuntza eta soluzioei buruzko informazioa jaso ahal izan baitzuten**.



ULMA TALDEA

Bizikleta elektrikoa lanera joateko, a ze ideia ona!

ULMA eta ORBEA elkartu egin dira, ORBEA bizikleta elektriko bat erosten lagundu nahi dizute-eta, lanera bizikletaz joan zaitez. Lanerako joan-etorrietan ULMAko pertsonen mugikortasuna iraunkorra izatea bultzatzeko proiektuaren barruan sartzen da akordio hau.

Helburua garbia da: lanera joateko autoa gero eta gutxiago erabiltzea, aparkalekuetan lekuak libre uzteko eta ULMA kooperatiba iraunkorrako eta osasungarriago bihurtzeko.

2019ko urtarrilaren 2tik 31ra arte eskatu ahal izango duzue zure bizikleta. Hasi jada aurrezten eta... Urte Berri, bizikleta berri!

| Nork eduki ahal izango ditu abantailak horiek?

Lanera bizikletaz joan daitezkeen ULMAko pertsona guztiek, baldin eta:

- jarduneko bazkide badira
- beste kooperatiba batzuetako birkokatuak badira, eta BKL direnak ere bai, baldin eta:
 - Kooperatiban gutxienez 6 hilabeteko antzintasuna badute, eta
 - aurreikusita badago Kooperatiban beste urtebete gehiago emango dutela.

Eskaintza honen gaineko informazio guztia eta modeloak, prezioak eta baldintzak ikusteko, esteka honetara jo: begira.ulma.com

**Abantaila
esklusiboak
eskaintzen dizkizugu
bizikleta erosten
laguntzeko**

ORBEAren prezio
ofizialarekiko deskontuak

Eta gainera, bizikleta
zenbat eta gehiago erabili,
deskontu handiagoak
lortuko dituzu



RETINAL proiektuaren hedapen digitala hasi da

Retinal proiektua mundu digitalean sartu da bere produktu eta zerbitzuak ezagutzera emateko. ULMA Medical Imaging barruko jardura bat izanik, bere ibilbideari 2012. urtean ekin zion.

Joan zen urtean 1.45 M€-ko europar diru laguntza bat eskuratu ostean, proiektuak indartu egin du bere jardura eta une egokian dago tresna digital desberdinen bitartez kanpora aurkezteko.

RETINALen egungo proposamena, berez, segundo gutxitan erretinopatia diabetikoa diagnostikatzeko gai izango den soluzio bat garatzean datza.

Hona hemen ULMA Medical Imagingeko lantaldeak merkatu sanitarioko kanal desberdinetan sustatzeko gaitzat jo duen tresna: web orri berria, diseinu erakargarri eta garbikoa, edozein gailuri eta sare sozialei

egokitzeko modukoa.

Gainera, bideo bat ere aurkezten da, non era bisualean azaltzen baita zertan datzan erretinopatia diabetikoa* egungo arazoa eta ULMAk proposatzen duen soluzio erraz, azkar eta segurua, gaixotasunaren detekzio goiztiarrerako adimen artifizialean oinarritzen dena.

* Erretinopatia diabetikoa da ikusmen galeraren eta itsutasunaren arrazoi nagusia diabetesa daukaten pertsonen artean.

Batu zaitez eta lagundu gure proiektua zabaltzen!



www.ulmamedicalimaging.com



Jiu-jitsu brasildarra, leuntasunaren artea

Wagner Rocha, ULMA Handling Systems Brasil



“Jiu-jitsu-ak autokontrola, nork bere mugak ezagutzea, bereziki mentala den indarra, diziplina, eta alaitasun handia ematen dizkit”

ULMA TALDEKO BESTE TALENTUAK

Taldeko langile eta bazkideek bateratu egiten dituzte beren ibilbide profesionala eta zaletasun zorrotzak, talentuarekin eta esfortzuarekin horma guztiak botatzen direla erakutsiz.

Wagner Rochak, 2015. urteaz gero ULMA Handling Systemseko Brasilgo filialeko analista informatikariak, lan bizitza eta goi mailako jiu-jitsu txapelketak uztartzen ditu.

Aurkari txiki eta arina, baina abila den batek arrakastaz egin diezaioke aurre aurkari handiago eta indartsuago bati, teknika modu eraginkorrean erabilia. Halaxe gertatzen da, hain zuzen, jiu-jitsu brasildarrean (BJJ). Borroka arte bat da, jatorria Japonian duen defentsa pertsonaleko sistema bat eta borroka kirol bat, Wagner duela 10 urte praktikatzen hasi zena, 23 urterekin.

Kirol honetako teknikak samurai klasikoek armadura zeramaten beste gudari samurai batzuei aurka egiteko erabiltzen zituzten gudu metodoetan dute sorburua. Gaur egun, jiu-jitsu brasildarra gorputzez gorputz zorian egiten den borrokan oinarritzen da, eta bere tekniken artean daude luxazio artikularrak, jaurtiketak, erasketak, proiektzioak, itotzeak eta mendetasunak. Zoruko borroka teknika horiek Brasilera egin zuten jauzi Mitsuyo Maederen eskutik, eta gerora, Helo Gracie maisuak, teknikak berri, eta kirol itxura eman zien. Maisu horrek herrialdeko ringetako lehia eremuan zabaldu zituen teknikok.

Leialtasuna, ohorea, zintzotasuna, errespetua, adorea, justizia eta gupida. Horiexek dira Bushidoren kodearen 7 printzipioak. Garai bateko Japoniako samuraiak jarraitutako portaera kodea zen, orain Wagner Rochari baliagarria zaiona jiu-jitsua bere bizitza pertsonalarekin eta lan bizitzarekin uztartu ahal izateko. *“Niretzat dena dago integratuta. Ezinbestekoa dut mugitzea, eta egunero zerbait ikastea”*, adierazi du.

“Zorionez, munduko txapeldun ugari dauden taldean entrenatzen dut, eta entrenamendu erritmoa oso gogorra da. Nire graduazio maila dela tarteko, ia beti entrenatzen dut haiekin”.

Duela urte eta erdi lortu zuen Wagnerrek gerriko beltza, eta dagoeneko irabazi ditu lehenengo saria Herri Mailako Txapelketan, hirugarrena Brasilgo Txapelketan eta bigarrena Estatukoan. ALMEIDAJJ bere eskolako taldea liderra da Sao Paulo Estatuan. Jiu-jitsua, jatorriz, brasildarra bada ere, txapelketak mundu osoan zehar egiten dira, federazioak daude kontinente guztietan eta Europako zirkuitua da norgehiagokarik garrantzitsuenetako bat. Bere pentsamendu motorra eta baita eskolarena ere ideia batean oinarritzen da: *“Pertsona bat egiteko gai dena beste batek ere egin lezake irribarre batekin”*.

Jiu-jitsuak sortzen dion grina berbera sortzen dio ULMA Handling Systemsen duen lanak ere. Bertan, analista informatikaria da Wagner, eta gaur egun, JDT eta SGA ezarpenak egiten ditu. Lana dela-eta izurgarri bidaiatu du munduan zehar: Hegoafrika, Argentina, Frantzia... Baina horrek ez dio eragotzi bere entrenamenduetan irmoa izatea. Dioenez, asko gustatzen zaio bidaiatzea eta entrenatzen jarraitzea, eta aldi berean, beste kultura batzuk ezagutzea. *“Euskal kultura izugarri gustatzen zait. Ezagutzen ditut hitz batzuk euskaraz, eta garrantzitsuenetako bat ‘Jatetxe’ da. Oraintxe, Gorka izeneko arraintxo bat daukagu etxean”*, adierazi du Wagnerrek.

“Autokontrola, nork bere mugak ezagutzea, bereziki mentala den indarra, diziplina eta alaitasun handia” ematen dizkio kirol honek Wagner Rochari. Izan ere, jiu-jitsua ez da soilik defentsa pertsonalaz eta immobilizazio teknikez jakitea; aitzitik, hori baino askoz ere gehiago da. Norantz jo jakitea da, ondo portatzen jakitea, bestearen tokian jartzen jakitea; hots, ongiaren eta diziplinaren bidetik joatea.

Talentuaren kudeaketa, erronka berri bat ULMArentzat

Gaur egun, giza baliabideetako gure departamentu asko erabat murgilduta daude denok kezkatzen eta arduratzen gaituen zeregin batean, hau da: Talentua erakarri eta atxikitzea. Hori dela eta, gure Negozioetako giza baliabideetako arduradunak elkarriketatzeari ekingo diogu, beren iritzia agertu eta konta diezaguten nola ari diren bizitzan, Talde mailan oro har, eta beren Negozioan bereziki. Alde batetik, Talentua erakarri eta gurera atxiki beharra, eta, bestetik, gure bazkide eta langileen artean lehendik dagoen Talentua garatu beharra.



“Enpresa barruan, barne sustapena bultzatzen saiatzen gara, beste motibazio bat daukaten, lanpostua aldatu nahi duten edo beste eginkizun edo erantzukizun batzuk beren gain hartu nahi dituzten pertsonak aukerak izan ditzaten kooperatiba barruan”

KARLOS PEREZ.
ULMA Handling Systemseko
Pertsonen Kudeaketako zuzendaria

« Aztertzen gabiltzan gaiari dagokionez, une honetan zelakoa da ULMA Handling Systemsek daukan premia? Gaur egun lehentasuna da Negozioarentzat? »

ULMA Handling Systems Kooperatibak aintzat hartzeko moduko hegakortasuna izan du atzipen bolumenari dagokionez. Duela bi urte eta erdi, azken zikloari ekin zitzaion, kasu honetan hazkunde eta atzipen historikoekin, eta ondorioz oso premia handia dugu hazkunderari dagokionez. Gainera, gure enpresan badugu elementu bereizgarri bat, alegia, maila teknikoan zein ezagutzan gure profilek daukaten espezializazioa eta espezifikotasuna, izan ere, UHS osatzen dugun lantaldeko gehien-gehienak ingeniariak dira. Faktore horien konbinazioak berekin ekarri du talentua erakarri eta atxikitzea guretzat funtsezko eta lehentasunezko aspektua izatea. Eta horrez gain, beste aspektu hau ere badago: azken bi urteetan bizi dugun internazionalizazioa, atzerrian proiektuak atzitzen ari baikara, gure filialetan izaten ari garen ebolutiboarekin batera, LTZ/ Komertzial baliabideak izatetik proiektuen ezarpenean eta ingeniarietan ere baliabideak edukitzera pasatuz, kontuan izanik horrek beste kultura batzuetako pertsonekin batera lan egiten ikastera behartzen gaituela eguneroko martxan.

« Talentua da jarduera bat bikain ikasi edo lantzeko daukagun ahalmena eta tasuna; baina, zure ustez, badakigu enpresako pertsona bakoitzaren tasunak identifikatzen eta indartzen? Nondik uste duzu abiatu behar duela identifikazio horrek, kooperatibatik edo gure ingurune akademikotik? »

Gure kasuan, pertsonen Talentua garatzeko orduan badira funtsezkoak diren bi aspektu: ikastetxeetatik ekartzen den ezagutza eta gure enpresan sartzean hartu beharreko ezagutza. Efizienteak eta operatiboak izateko, alde batetik, ikastetxea vs Kooperatiba harremanak etengabekoa izan behar du, irakaskuntza arautuan ematen diren prestakuntzetako

ikasgaiak eta edukiak zehazteari dagokionez eta eguneroko landa lanean Kooperatibak interesekotzat eta gaurkotasunekotzat jotzen dituen aspektuei dagokienez. Bestalde, pertsona bat enpresan sartzearekin batera, erreferentziatzeko pertsona senior bat identifikatzen ari gara; baita tutore bat eta unibertsitatearen eta Kooperatibaren arteko aldizkako bilera batzuk ere, ebolutiboa eta aurrerapena analitzatzeko. Horrekin guztiarekin, talentua garatzen eta praktikan jartzen has gaituzke, garapen, etengabeko ikaskuntza, PDCA prozesu, erronka eta abarrerako inguruneak sortuz.

« Zein balorazio egiten duzu ULMA Taldeak arlo honetan egiten duen ekarpenaz? »

ULMA Taldean Negozio desberdinak daude, baina horrez gain, baita ebolutibo diferenteak eta oso premia bereziak ere. ULMA Taldean badaude kooperatiba desberdinetako Pertsona Arloek batera lantzen ditugun aspektuak, inpaktua denoi eragiten digunean; eta badaude bi edo hiru kooperatibaren arteko aspektu bereziagoak ere, premia bat partekatu eta premia horri heldu behar zaiola eta. Kooperatibek badugu gure Negozioekiko operatibotasun eta erantzukizun bat; gauza bera gertatzen da ULMA Taldearekin gure marka enplegatzailea gure jardute eremutik kanpo, gizartean, beti eta modu koordinatuan lantzeari dagokionez.

« Antzematen duzu sintoniarik gainerako Negozioekin? »

Hain Negozio desberdinak dituen talde bateko kide izatearen abantaila bat zera da: aukera dagoela bertako kudeaketa aspektu desberdin, berritzaile eta sortzaileak ezagutzeko, eta horiek kooperatiba batetik bestera aplikatzeko. Gure kasuan, hazkunderari eta ebolutiboari dagokienez bizitzan ari garen errealitate partekatua ondo ondo, oso harreman eta koordinazio ona dago ULMA Taldeko Negozio desberdinetako Pertsona Arloen artean.

« Itxura denez, negozio estrategia on bat edukitzearekin ez dugu nahikoa; horrekin batera, marka enplegatzaile gisa definituko gaituen marketin eta komunikazio estrategia bat ere eduki beharra dago. ULMA Handling Systemsen, zelan gurako zenukete zuen xede publikoak zuek ikustea arlo honetan? »

Aspektu hau hainbat aldiz identifikatu dugu Kooperatibako organoek Otoran egin ditugun azken dinamiketan. Enpresen erronketako bat ez da bakarrik zer egin, baizik eta nola egin. Hobetzeko, aldatzeko eta erronka berriei heltzeko ekintzetan ez ezik, nola egitean ere eboluzionatzeko ahaleginean dihardugu, bai antolaketari bai informazioari dagokionez. Gure ebolutiboaren oinarria hau da: enpresan lantzen ari diren aspektuak, egoki egiten badira, enpresako pertsonak uneoro izango dira horren jakitun. Eta hurrengo deribatua ez da Kooperatiba barrurako bakarrik izango, baizik kanpora begira, ingurunera eta gizartera begira.

« Bukatzeko, zure ustean gurean lehendik daukagun talentua sortu eta garatzearen alde egin beharko genuke, ala kanpoko talentua erakartzearen alde? Edo kontua oreka topatzea da? »

Gure kasuan, eta ULMA Handling Systemsen bizi dugun zikloaren ondorioz, orain zentratuago gaude kanpo baliabideak atzitzeko jardunean, aukera ematen digutelako daukagun atzipen handiari heltzeko eta lan karga eta orduak Kooperatibaren proiektuko parte garen pertsonen artean egonkortu eta banatzeko. Enpresa barruan, barne sustapena bultzatzen saiatzen gara, beste motibazio bat daukaten, lanpostua aldatu nahi duten edo beste eginkizun edo erantzukizun batzuk beren gain hartu nahi dituzten pertsonak aukerak izan ditzaten kooperatiba barruan. Izena emandako bazkideei zuzendurik Kooperatiban argitaratu diren lanpostuen %90 Kooperatibako bertako bazkideek hartu dituzte, eta daukagun hazkunde garaia ondo ondo, azken bi urteetan 80 lanpostu argitaratu ditugu guztira, denak ere oso aukera interesgarriak.

ULMA Taldeak gorputzaren eta buruaren arteko oreka bultzatzen du

Pasa den apiriletik ULMAko langileek yoga saioetara joateko aukera dute eguerdietan Taldeko gimnasioan. Irakasleak eta lau ikasleek beraien esperientzia kontatu digute.



”
yogako saio
batean ikasten
den guztia
eraman daiteke
esterillatik kanpo

MIREN ZUBELDIA, Oñatiko “HAZI infinito” ongizate zentroko kidea, astean hiru aldiz etortzen da ULMAra bertako langileei erlaxazio teknikak erakusteko.

“ULMAren aldetik ekimen paregabea eta aurrerapauso handi bat dela iruditzen zait, langileei yoga praktikatzeko aukera ematean euren osasun eta ongizatean inbertitzen ari delako. Gorputz kontzientzia sortu eta buru-argitasuna lortzen laguntzeaz gain, flexibilitatea, indarra, posturaren hobetzea, erlaxatzeko gaitasuna, gure oreka hobetzea, kontzentrazioa, erabakiak hartzeko eta estresa maneiatzeko gaitasuna, eta gureganako zein besteenganako konfidantza eta onarpena hobetzen ere lagunduko digute yogako saioek. Honela osasun ona, lasaitasuna eta ongizate orokorra lortzen joango gara.

Erlaxatzen, lasaitzen eta energia berriztagarri betetzen lagunduko diguten arnasketa-teknikak ikasteaz gain, gure gorputza orekatzen, luzatzen eta barnean ditugun tentsioak askatzen lagunduko diguten asanak

(posturak) ere lantzen ditugu. Gure gorputz fisiko eta mentala ezagutzen laguntzen diguten arnasketa, postura zein meditazioak ere praktikatzen ditugu.

Gainera, yogako saio batean ikasten den guztia eraman daiteke esterillatik kanpo. Ikasten ditugun arnasketa-teknikak adibidez, bizitzak jartzen gaituen egoera ezberdinak kudeatzeko tresna bezala erabil ditzakegu.

Gaur egun daramagun bizi-eritmoan askotan zaila egiten zaigu momentu batez gelditu eta gure barrura begiratzea. Horregatik, askotan zailak egiten zaizkigu yogako saioetan proposatzen diren hainbat postura. Hala ere, gogotsu eta oso jarrera positiboarekin etortzen dira langileak yogako saioetara, eta eskertzekoa izateaz gain, hori oso garrantzitsua da yoga praktikatzekoan.”



Zer iruditzen zaizu ULMAk bere instalazioetan yoga praktikatzeko aukera ematea? Ze onura ekarri dizkizute saio hauek?



DANIEL LAGUARDIA
ULMA Handling Systems

“Gogo asko nuen Yoga egiteko baina ordutegiarekin ezin nuen, azkenean urrun bizi naiz eta etxera heltzerakoan oso berandu egiten zitzaidan. ULMAk aukera hau ematea primeran iruditzen zait. ULMAN hasi baino lehen ez neukan praktikatuta, baina zorte asko izan dut eta aurten ere tokatu zait.

Klaseak jarraitzeko ondo moldatzen naiz, gutxi gorabehera, postura batzuk asko kosta daitezke eta gorputz guztiak ez dira berdinak, ezta flexibilitatea ezta non dauden kokatuta gorputzeko parte batzuk, baina Mirenek esaten duen bezala: bakoitzak bere posibilitateen arabera dagoena egin behar du eta bakoitzak bere gorputzari entzun behar dio.

Denetarikoa onurak ekarri dizkit: oso pozik noa klasera eta etxean ere praktikatzen ari naiz, flexibilitate gehiago daukat, orain ez nago hain estresatuta eta gainera beste taldeko jendea ezagutzen ari naiz.”



IONE GURIDI
ULMA Zerbitzu Zentralak

“ULMAk aukera hau ematea bikaina iruditzen zait, egia esan. Arratsaldean, lanetik irten ostean, ez dut denbora askorik edo momentu egokia aurkitzen horrelako praktiketarako eta eguadiako tartean niretzat momentu hori izatea oso ondo etortzen zait astean behin behintzat. Lehen aldia da yoga praktikatzen dudana, hasi besterik ez gara egin eta poliki poliki ikasten ari naiz. Oraindik ez dut asko erlaxatzerik lortu baina, hala ere, ondo etorriko zait eta gustora joaten naiz. Zailena edo gehien kostatzen zaidana, pausuak eta arnasketa biak koordinatzea da. Nahiko lan dut pausuak jarraitzen, ez naizela konturatu ere egiten arnasa noiz hartu eta botatzen dudana ere. Behar bezala egitea lortzen badut, pixka bat lanarekin eta munduarekin deskonektatu eta momentu hori niretzat hartzea onuragarri ikusten dut egunerokotasuneko eritmoa pixka bat apurtzeko. Era berean, gorputzarean atal desberdinak luzatu eta lantzeko ere ondo etorriko zait.”



MIKEL ETXEBERRIA
ULMA Packaging

“Alde batetik, eguerdi partean aktibitateak egiteko aukera ezin hobea da kontziliazioari laguntzeko. Semeak tartean izanda ez naiz aktibitatean apuntatzen, baina eguerdian izanda berriz, jarraipen bat emateko errexagoa da. Bestalde langileon artean ohitura osasungarriak sustatzeko egitasmo egokia iruditzen zait. Presentzialki lehenengo aldia da yoga praktikatzen dudana, inoiz luzaketak egiteko Youtube bitartez hasiberrientzako yoga tutorial batzuk egin izan ditut, baina hau beste gauza bat da!

Hasiera baten pittinbat kosta egiten da ohitzea harnasketa, luzaketa eta postuareta. Ondoren nahiz akaso lotsagarri xamar ibili oso gustora eta emaitza onekin jarraitzen da. Fisikoki eta psikologikoki onura pittin bat notatzen da; tentsioa gutxitu eta gorputzaren kontzientzia haundiagoa izatearen sententzia izatea.”



AINHOA GALDOS
ULMA Construction

“Aukera oso ona iruditzen zait ULMAk ematen duena. Lehenengo aldia da Yoga praktikatzen dudana eta gustatzen zaidan edo ez ikusteko aukera oso ona da. Klaseak jarraitzeko ondo moldatzen naiz. Ikasten, irakasleari begira, baina oso ondo. Mirenek pausoz pauso dena azaltzen du. Gezurra badirudi ere, nahiz eta denbora asko ez izan, lasaitu egiten nau. Niretzako momentuxoa da.”

Atal honetan, zure Fundazioak –ULMA osatzen dugun pertsonekin batera– egiten duen jardueraren berri emango dizugu, izan ere, horixe da gizartea eredu humanizatuago eta sostengarriago batera eramateko hartua dugun konpromisoa bideratzeko daukagun modua.



Etor Arregi



Gurasoentzako eskola



Haur tailerrak



Plastikoa murriztea



Mugikortasun jasangarria

#keinujasangarria

Jardueraz betetako
beste urte bat; bilketa
solidarioak, lana eta
familia uztartzea,
inklusio soziala eta
jasangarritasuna izan dira
2018. urte honetarako
helburu batzuk

Mundukideko kooperatzaile

ULMA Architectural Solutionseko bazkide den Etor Arregik bi urtean Brasilen Mundukideko kooperatzaile gisa jarduteko sinatu du. Brasilen urtebete egitear dagoela, harekin hitz egin dugu, eta zera helarazi digu: *“Kooperatibak indartzen ari garela sentitzen dut, eta hori oso atsegingarria da”*.

Yoga saioak

ULMAN gure pertsonen ongizatea sustatzeko, yoga saioak Oñatin. 50 minutu lasai-lasai, astearte, asteazken eta ostegun eguerdian. Eta Legazpin, hipopresiboak eta Pilates.

Urtariletik aurrera talde berriak. Animatu!

Haur tailerrak

Aurten, urtarilean eta ekainean izan dira, lan bizitza eta familia bateragarri egiten laguntzeko. 4 urtetik 10era bitarteko ia 200 haur ederto ibili dira ULMAN, gurasoak lanean zeuden bitartean.

Plastikoa murriztea

Kafe orduan plastikoaren kontsumoa murrizteko, kooperatiba guztietan kristalezko

kikarak banatu ditugu. Hala, egunean 1.000 plastikozko ontzi aurrezten gabiltza ULMAN.

Mugikortasun jasangarria

Lanerako desplazamendu jasangarriek saria daukate. Oinez, bizikletaz, patinatuz, autoa partekatuz, garraio publikoz (LanBus), eta orain, baita patinete elektriko ere.

Urtariletik aurrera, programa Espainiako lurralde osora zabalduko dugu: kilometro jasangarri bakoitzeko, puntuak lortuko dituzu, eta puntu horien truk opariak eskuratuko. Informazio guztia webgune honetan:

www.ekokilometro.ulma.com

Gurasoentzako eskola

Haurren portaera, bizitzaren lehen etapetako heltze prozesuak eta guraso gisa betetzen dugun rola hobeto ulertzeko.

Lehen topaketa urrian izan zen, eta “Mainak, kasketaldiak eta mugak” gaia landu zen. Bigarrena azaroan izan zen, non “Haur autoestimua landuz” gaia landu genuen, Rafael Cristobal doktorea hizlari zela. Haurtzaindegi zerbitzua egon zen, bertaratzea samurtzeko.

Laneratzea

Oñatiko Udalak, Bidebarrik eta ULMAK “Laneratz” lankidetzaren hitzarmena izenpetu dute, gizarrean baztertuta edo baztertuta egoteko arriskuan dauden pertsonak gure ingurune enpresetan lanean hastea sustatzeko.

Bestalde, lanean gabiltza desgaitasunen bat daukaten pertsonak gure kooperatibetan lanean has daitezten. Horretarako, Gureak eta Katealegia enpresa adituen laguntza daukagu Gipuzkoan, gure kooperatiba guztien ezinbesteko lankidetzaren eta inplikazioarekin.

Helburua da aipatutako kolektiboetako pertsonen lan bat eskuratzea eta hori baliagarria izatea pertsona gisa garatuz joateko eta gizarrean erabat txertatzeko.

Kirol eta heziketa eskola

Oñatiko hiru ikastetxeek, Aloña Mendi kirol klubaren lankidetzarekin, bat egin dute heziketa eredu integral eta kalitatezko bat sustatzeko, kirol aniztasunaren eta errespetua, talde lana eta halako balioen alde egiteaz gainera, Oñatiko 4 urtetik 15era bitarteko haur eta gazteen artean bizi ohitura osasungarriak bultzatzeko. ULMA Taldeak bazkide babesle gisa bat egin du heziketa proiektu interesgarri honekin.

Elkartasuna Hondurasekin

Apirilean, ULMA Taldeko ehunka pertsonak parte hartu zuten gaztelaniaz idatzitako liburu eta ipuinen bilketa solidarioan, gero liburu eta ipuin horiek Honduraseko bidaltzeko. Acoes Honduras GKEa arduratu

zen bildutako elkartasun tonak bidaltzeaz. Liburu eta ipuin horiek guztiak Honduraseko ikastetxeetan daude dagoeneko, eta irakurketa ohiturak sustatzeko eta kultura hedatzeko balio izango dute. Eskerrik asko zuen laguntzagatik!

Gainera...

.ULMA Taldeak Mundukideren aldeko lasterketa solidarioan parte hartu du

.ULMA Taldea, First Lego League-n babesle

.La Caixaren prestakuntza ikastaroak

Bidebarrira zuzenduta

Eta abenduaren 14ra arte, “Jostailu bilketa”...

Oraindik ere garaiz zabilta jostailu berrien bilketan laguntzeko, Gurutze Gorriak Oñatzerori eman diezazkion. Hala, gure inguruko haur behartsuek Oñatzeroren bisitaldia izango dute eta euren jostailuak jasoko dituzte, gure elkartasunari esker.



Iraganari keinuka



60ko hamarkada

ULMAko lehen emakumeak Otadui pasealekuko bulegoetan lanean, 60ko hamarkadaren bukaeran.

ANTZEKO IRUDIREN BAT BALDIN BADAUKAZU EDOTA MUGARRI HISTORIKOREN BAT GOGOAN BADAUKAZU, GUREKIN HARREMANETAN JAR ZAITEZKE, ULMAREN HISTORIA AZTERTZEN DUGUN ATAL HONETAN ARGITARATZEKO.

ALDEZ AURRETIK, ESKERRAK EMATEN DIZKIZUEGU ZUEN LANKIDETZAGATIK.



ERRETIROAK: 2018ko irailaren 1etik abenduaren 31ra

José Miguel Aguirre



Maixabel Moyua



Iñaki Segurola



Jesús Astarloa



Txaro Arregui



Abilio Castaño



Jose Antonio Guridi



Javier Osa



Alfred San Marti

Eskerrik asko denoi eta ondo pasatu! **Zorionak**